

Mikel Irizar

Diputazioak

K

risia luzatzen ari da eta defizit publikoa murrizteko administrazioa mehetu beharra aipatzen da. Aldundiak kentzea proposatu zuen Rubalcabak eta horrek gurean berpiztu egin du lurralde historikoen auzia. Bestalde, ETArek adierazpenak atak ireki ditu gehiengo berriak osatzeko. Osagaiak baditugu koktela prestatzen hasteko.



DANI BLANCO

ez da maila bat edo beste kentzea, daudenak arrazionalizatzea baino. Horretarako ezinbestekoa deritzot hautetsi gutxiago izateari. Nola? Bada, kargu ezberdinen arteko inkompatibilitateak ezabatuta. Batzar Nagusietako kide bat aldi berean Legebiltzarreko kide izanda, gastua erdira dator. Eta ez luke lan doblea egin behar. Hautetsien lana ez da kudeaketan aritzea, horretarako daude administrazioako teknikariak. Hautetsiek norabidea jarri behar dute eta jarduera kontrolatu.

Bide batez, hautetsi bera maila ezberdinetan egonda, bateko eta besteko ikuspegiak integratu egingo lituzke, erakunde arteko gatazkak leunduz.

ALDUNDI SUBIRANOAK. Espainiako legedi gorenean –Konstituzioan– euskal Aldundiak dira eskubide historikoen jabe eta hortik datorkie, esaterako, zergak biltzeko eskumen berezkoa. Eusko Jaurlaritzak estatus juridiko ahulagoa du, Murtziaren parekoa. Horregatik, erabakitze eskubideari oinarri juridikoa bilatu nahi izan zaionetan, eskubide historikoetara jo izan da. Bestalde, ez da ahaztu behar inoiz hegoaldeko lau lurraldeak bateratzekotan, formularik egingarriena izan daitekeela lau Aldundien konfederazio bat.

Ez da gorrin foruzalea, kontu praktikoa baizik. Espainiak egin dezala nahi duena, baina guk ez genituzke Aldundi subiranoak ukitu behar euskal eskubide historikoen jabetza beste erakunderen bati aitortzen ez zaion bitartean.

ESPARRU FUNTZIONALAK. Zerbitzu publikoen antolaketa asko garatu da azken hamarkadetan, baina antolaketa esparruak oraindik zaharrak dira. Udala berez ez da unitate funtzionala, gehienak txikiak direlako, eta batzuk handiak. Eta foru hauteskundeetan oraindik partidu judizialak erabiltzen ditugu, nahiz inork gutxi dakien zein diren ere.

Horiek baino egokiagoa da esparru funtzionala, 50.000-100.000 biztanle tarteko zonalde geografikoa, ezaugarri komunak dituen. Gipuzkoan eta Bizkaian erraz uztartu daiteke eskualde-mankomunitateekin, eta Araban zein Nafarroan ere ez litzateke zaila.

HAUTETSI GUTXIAGO. Administrazioa mehetzeko kontua

ZIRIBORRO BAT. Demagun hegoalde osoan hautes-prozesu bakar bat egiten dugula lau urtekin behin. Hautes-esparrua litzateke esparru funtzionalen araberrako eskualde edo distritu-urbanoa. Hor aukeratuko genituzke 6-8 hautetsi eta horiek osatuko lukete mankomunitatearen gobernu kontseilua. Udaletan teknikariak bakarrik leudeke, mankomunitateak ezarritako politikak gauzatzen.

Hautetsi horiek beraiek osatuko lukete, beste eskualdeetakoekin batera, lurraldeko Batzar Nagusia, eta hortik irtengo litzateke Aldundia. Honen funtzio nagusiak lirarteke zerga bilketa, mankomunitateen koordinazioa eta Jaurlaritzarekin adostutako eskumen banaketan dagozkionak kudeatzea.

Azkenik lurralde bakoitzeko Batzar Nagusiak izendatuko lituzke bere kideen artean Legebiltzarrean legezkiokoen ordezkariak. Eta ez guztiek kopuru berdina, hori apurtzeko ordua ere etorri da. Lurralde bakoitzak pisu bat dauka populazioan eta barne produktuan, beraz, horien edo antzeko parametroen arabera ordezkari portzentaje bat behar luke izan goi ganberan.

Hasiko gara serio hitz egingen? ■



«
Administrazioa mehetzeko kontua ez da
maila bat edo beste kentzea, daudenak
arrazionalizatzea baino. Horretarako
ezinbestekoa deritzot hautetsi gutxiago
izateari. Nola? Bada, karguen arteko
inkompatibilitateak ezabatuta. Batzar
Nagusietako kide bat aldi berean
Legebiltzarreko kide izanda,
gastua erdira dator
»